

EBAZPENA, 2017ko apirilaren 19koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena; Ebaluazio Batzordeen kide batzuk kargutik kentzea eta Batzordeen kide berriak izendatzea xedatzen duena. Batzorde horiek Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak eta ikertzaileak eta doktore titulua duten unibertsitate pribatuetako irakasleak egiaztatzeke izango dira. Ekainaren 28ko 2012/13 Legean, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa, xedatzen duenari jarraiki,

2012/13 Legean, 8.3.d) artikulua xedatzen duenari jarraiki, Zuzendariari dagokio ebaluazio-batzordeetako kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Aholku Batzordeak proposatuta.

Horregatik, esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Giza Zientziako Batzordeburua Andoni Barreña Agirrebeitia kargutik kentzea, zeren eta karguari uko egin dio eta egindako lanagatik eskerrak ematea (204/2013 Dekretuko 19.6. art).

Bigarrena.- Aholku Batzordeak behin proposatuta, Giza Zientziako Batzordeburua Cristina Borreguero Beltrán eta idazkaria María Luisa Lobato López izendatzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 19a.

EVA FERREIRA GARCIA



Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendaria,